

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2012ko urtarrilaren 10a. IX. urtea. 2.339. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Shanti Txapelketako antolatzaileak «gustura» nesken parte hartzearekin

Zurrunbiloak, Txispa, Laskoraingo Tigreak, Sua 11 eta Iurre taberna taldeak izan dira aurtengo irabazleak; jende asko bildu da Usabal kiroldegian, finalak ikusteko

Guztira, 61 taldek parte hartu dute aurtengo txapelketan, 600 gaztetxo baino gehiagok; neskek osaturiko taldeek urtetik urtera gora egiten dutela diote antolatzaileek **7**



Baserritarrak eta Sua taldeen arteko lehia pasa den igandean, Usabal kiroldegian. **tv**

Fernandez hasi da jada Volvo Ocean Racerako entrenatzen

Lehen postuari eusteko helburuarekin Pertsiar Golkoan itsasoratzen lehena izan da ibartarraren Telefonica Team ontzia; ostiralean egingo dute kostako arraun proba **6**



Fernandez eta taldeko beste hainbat kide entrenatzen, atzo. MARIA MUJINA

Ibarrak maila bikaina eman du Euskadiko Sokatira Txapelketan

Gizonezkoak 680 kilokoan bigarren sailkatu dira Badaiotzen atzetik, eta emakumezkoek 540koan hirugarren egin dute; hurrengo jardunaldia igandean izango da, Lizarran **7**

Azpiegitura lan handiak salatzeko ekitaldiak, Tolosan

Urtarrilaren 21ean Abiadura Handiko Trenaren kontrako manifestazioa egingo dute eguerdian **3**

**Eskerrik
&
asko!**

Tolosa&Co



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza

Zatoz HITZAko
bulegora zure
mahai egutegiaren bila!



Bertso saio «mundiala» antolatu du Txolarre irratiak hirugarren urtez

Sarrerak alde zuzenetik, eskualdeko hainbat tabernatan eskuratu ahal dira, edo egunean bertan, Leidorren

↓ Datuak

URTARRILAK 21, LARUNBATA

■ **Ordua eta lekua.** 18:00etatik aurrera, Tolosako Leidor antzokia.

■ **Bertsolariak.** Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Aitor Sarriegi, Jon Maia eta Larraulgo Jexux Mari Irazu.

■ **Gai jartzailea.** Amaia Agirre.

■ **Sarrerak.** 10 euro. Urtarrilaren 19a arte Tolosan Raku, Orbela, Kantabriko eta Denak tabernetan; Ibarra Zubiaurre tabernan; Anoetan Buztina tabernan; Villabonan Amasa kafetegian; Zizurkilen Iriarte jatetxean; Alegian Izkina tabernan; eta Berastegin Urepel elkartearen eskuratu daitezke. Eta egunean bertan, urtarrilak 21, Leidorreko leihatilan izango dira.

ren laguntza izan du guztia antolatzeko.

Sarrerak 10 eurotan daude salgai hilaren 19a bitarte Tolosaldeko hainbat taberna eta jatetxetan, eta egunean bertan, Leidorreko leihatilan ere izango dira.

11 urtetan uhinetan

Txolarre irratiak lehen zuzeneko emankizuna egin zuenetik 11 urte bete ziren joan den abenduaren 26an, eta Jon Miranda irrati-ko arduradunaren hitzetan «ordutik etenik gabe jardun du euskaraz eskualdearen berri ematen». «Euskarazko hedabideena bidegurutze eta zailtasunez beteriko bidezidorra da, baina egin beharrekoa, Tolosaldeak euskara hutsezko irrati merezi eta behar duelako. Ahalegin horretan beste bultzada bat izango da Leidorreko bertso saioa. Irratiak eskualdean duen babesaren erakustaldi», gaineratu du esatarik.

Erredakzioa

Anoeta
Hirugarren urtez Tolosaldeko euskarazko irratiak, Txolarrek, bertso saioa antolatu du urteari ongi etorria egiteko. Hitzordua hilaren 21ean izango da, eta urteroko moduan punta puntako bertsolariak izango dira, «saio mundiala» eskainiz: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Aitor Sarriegi, Jon Maia eta Jexux Mari Irazu. Gai jartzaile, aurrekoetan bezala, Amaia Agirre eskualdeko bertsolaria izango da.

Tolosako Leidor antzokian izango da saioa, 18:00etatik aurrera, eta Txolarrek Tolosako Udala-

Topic zentroari buruzko erreportajea argitaratu dute rdE webgunean

Espainiako Kultura Ministerioak arte eszenikoei buruz duen web orrian argitaratu dute informazioa

Erredakzioa

Tolosa
rdE aldizkari digitalak *Topic. La utopia cumplida* izeneko erreportajea argitaratu du. Espainiako Kultura Ministerioak arte eszenikoen inguruan duen aldizkaria da, hain zuzen, rdE.

Lanak Topic zentroaren instalazioetan eta jardueretan barrena ikus entzunezko ibilbidea

da, eta zenbait bideo eta hainbat argazki jasotzen du.

Guztira sei erreportaje dira, sei bideo, alegia, eta Topic-eko arduradunen hitzetan «zentroaren ikuspegi sakon eta osatua eskaintzen du».

Lehen bideoa sarrera modukoa da, eta bigarrenaren museoaren barrena ezagutzeko argazki bidezko ibilbidea proposatzen dute. Hirugarren bideoan aldiz, bi zuzendarik, Migel Arretzek eta Idoia Otegik, hitz egiten dute, eta laugarrenaren, dokumentazio zentroaren inguruan mintzatzen dira. Bosgarren bideoan txotxongiloak dira protagonistak eta azkenekoan, eskolak.

Tolosar bat Whoopaa sare soziala zabaltzen

Holandako talde batekin ari da elkarlanean 18 urte dituen Asier Sarasua

Erredakzioa

Tolosa
Sare sozialek geroz eta indar gehiago dute egungo gizartean. Facebook, Twitter, Tuenti, LinkedIn... bezalakoak ezagunak dira jada, baina Holandako gazte talde batek beste bat sortu du, Whoopaa, eta bertan, Mondragon Unibertsitatean ikasten duen 18 urtetako Asier Sarasua ere parte hartzen du. Tolosarrak Finlandian egin du ikasketen sei hileko bat eta bertan sartu zen proiektuan.

Whoopaa 2011ko honlandar ekintzaileen saria eskuratu du,

eta Holandako Team Academy negozio zentroko hiru ikaslekin abiarazi zuten.

Sare berri honek duen berezitasuna da, beste sare sozialetako mezuak bidali eta jaso daitezkeela, hau da, Whoopatik ere mezuak bidali daitezke, eta zein sare sozialetan partekatu nahi den aukeratu.

Gazte profesionalak

Sare sozialaren sortzaileek diote, gazte profesionalak zuzendutako plataforma da, eta helburua lana edota elkarlan profesionalak bilatzen laguntzea da.

Besteren artean, Whoopaa unibertsitatean ekitaldiak antolatu nahi dituzte, hartara gazteen, enpresen eta unibertsitateen arteko elkarnala sustatuz.

Sare sozial berri hau ere doakoa da, eta izera irekia duela diote sortzaileek.



Leidor aretoan ospatu zen lehen aldiz, Txolarre irratiaren aldeko bertso saioa. I. URKIZU

hitza
ren
jertsea

Helduentzako Jertsea:
lehen **29,5 €**
orain, eskaintza berezia **25 €**

Noiz eta nola egin eskaria?

• TELEFONAZ: 902-82 02 01
• POSTAZ: harpidetza@hitza.info

* Jertsea probatu nahi baduzu, zatorz HITZAren bulegora

Kolorea: beltza
Gizon eta emakumeen modelook

Neurriak:
• Gizonak: S-M-L-XL-XXL
• Emakumeak: S-M-L-XL

hitza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Azpiegitura lan handiak geldiarazteko ekitaldiak antolatu dituzte, Tolosan

Urtarrilaren 18an Gipuzkoa Zero Zaborrek hitzaldia eskainiko du 19:00etan, kultur etxean

Enertiz Maiz Tolosa

Datorren astean azpiegitura lan handien inguruko hiru ekitaldi izango dira, Tolosan. Gipuzkoan hainbat proiektu erasokorren aurka aritzen diren herri mugimenduak elkartu dira jarduerak antolatzeko, eta helburua «azpie-

gitura lan handiak geldiaraztea eta jendarte eredu aldatzea» dela diote. Hori dela eta, Gipuzkoako hainbat zonaldean ekitaldiak antolatu dituzte; horietatik hiru, Tolosan. Lehena, Hondakinen inguruko izango da hilaren 18an. Gipuzkoa Zero Zaborrek eskainiko du hitzaldia 19:00etan kultur etxean. Hurrengo egunean, autopista elektrikoaren inguruko bideo emanaldia eskainiko dute, ordu eta leku berean. Hilaren 21erako, larunbaterako, manifestazio burrunbatsua deitu dute, AHTaren aurka egiteko. 12:30ean Triangulotik hasiko da. Guztia salatze-

↓ Deialdiak

■ **Hilak 18.** Gipuzkoa Zero Zaborrek hitzaldia eskainiko du 19:00etan, kultur etxean.

■ **Hilak 19.** *Autopista elektrikoaren kezka iturri* bideo emanaldia 19:00etan, kultur etxean.

■ **Hilak 21.** AHTaren aurkako manifestazio burrunbatsua, 12:30ean abiatuko da Triangulotik.

berriz, otsailaren 4an, 17:30ean, manifestazioa egingo dute, Donostian.

Kepa Fernandez Larrinoak liburu berria argitaratu du

‘Manifiesto por una antropología razonada’ argitaratu du Alkizan bizi den antropologo eta idazle bilbotarrak

Erredakzioa Alkiza

Kepa Fernandez Larrinoa antropologo eta idazleak, *Manifiesto por una antropología razonada* liburu berria argitaratu du. Alkizan bizi den bilbotarrak, norberekoitasuna eta gaur egungo gizartearen kontsumismoa jorratu ditu. Antropologian zentratzen da, eta estatu neoliberal batean jokatzeko duen papera aztertzen du.

Era berean, Fernandez Larrinoak, tokiko kultur garapenera eta Europako ondare kulturalaren kritika egiten du liburuan. Unibertsitateak pribatizatzen ari direla dio, eta «enpresak unibertsitatean gero eta gehiago daude



A. BELAUNZARAN

sartuta», salatu du. Unibertsitateak, ikertzeko eta kulturak aberasteko izan behar dutela azpimarratu du, eta «ez etekinak ateratzeko».

Nafarroako Unibertsitate Publikoan egiten du lan, baina momentu honetan, Oxforden (Ingalaterra) bizi da, eta bertan ari da lanean. Beste bilburu prestatzen ari da.

◉ anoetaldea@hitza.info

Irudia ▾ Ibarra



ZENBAKI SARITUAK ATERA DITUZTE

Ibarrako Merkatarien Elkartek Gabonetako Kampainaren zozketa egin zuen atzo. Elkarteko bazkide diren dendetan erosketak egiteko hiru erosketa txartel zozketatu dituzte, 100, 200 eta 300 eurokoak, hain justu. Hauek izan dira zenbaki saridunak: 2.259 zenbakia duenak, 100 euroko txartela eskuratu du; 5.021 zenbaki sarituak 200

euroko txartela jasoko du, eta 1.122 zenbakia duenari, 300 euroko erosketa txartela egokitu zaio. Saridunek, hilaren 23a, astelehena, 13:30ak baino lehen jakinarazi beharko dute 943 67 02 44 telefono zenbakira deituta. Eta txartel irabazlea aurkeztu beharko dute. Hauetakoren bat ez baliatzen agertuko, saria eman gabe geratuko litzateke. HITZA

Txintxarri Abesbatza kultur elkartearen batzar nagusia, gaur

Txintxarriko kideak kultur etxean elkartuko dira; lehen deialdia 20:00etan izango da eta bigarrena, 21:00etan

Nerea Pikabea Alegia

Urte hasiera guztietan egin ohi duen legez, urteko batzar nagusia egingo du Alegiako Txintxarri Abesbatza kultur elkarteak.

Gaur, hilak 10, herriko kultur etxean izango da, eta bi deialdi luzatu dituzte. Lehen deialdia 20:00etan izango da, eta bigarrena 21:00etan.

2011. urtean elkarteko bi abesbatzek –Txintxarri Txikik eta Txintxarri– egindako ekitaldiak, eta diru kontuak aztertuko dituzte, eta horrela badagokio, onartu egingo dira. Eta 2012ari begira bi koruek dituzten aurreikuspenak ere aurkeztuko dituzte. Elkarteko Zuzendaritza Ba-

tzordearen zati bat ere berritu egingo da batzar nagusi horretan, eta lehendakari berria ere aukeratu beharko dute bertaratzen direnek.

Elkarteko bazkide guztiei batzar horretara joateko dei egiten zaie, eta bide batez, elkarteko bazkide izanez gero, koruko kideren batekin harremanetan jarri edota kultur etxeko postontzian eskaera uztea besterik ez da egin behar.

◉ alegaldea@hitza.info

Dantza Soka Eguna eta kaldereroak antolatzeko bilerak deitu dituzte

Anoetako Udalak bihar eta etzi 18:00etan bilerak egingo ditu, eta herritarrei parte hartzeko deia egin die

Erredakzioa Anoeta

Gabonetako ekitaldiak bukatu, eta Anoetako Udala dagoeneko Dantza Soka Eguna prestatzen hastera doa. Aurten, otsailaren 11n ospatuko dute. Entsegu egu-

nak eta bestelakoak zehazteko bilera antolatu dute. Bihar, hilak 11, izango da, 18:00etan udaletxean.

Bestalde, Gabonetako programazioaren balorazioa egiteko, eta kaldereroak prestatzen hasteko beste bilera bat egingo dute. Kasu honetan, ostegunean, hilaren 12an elkartuko dira udaletxean, eta 18:00etan izango da.

Udaletik, herriko talde guztiei eta herritar orori deialdi hauetan parte hartzeri joateko deia luza-zen diete.

◉ anoetaldea@hitza.info

Iragarki laburrak

LANA

■ **Interinoa.** Adineko pertsona bat zaintzeko, interino moduan arituko den pertsona euskalduna behar dugu Errezilen. Interesatuak, deitu 699 145 856 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna,

egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garaia, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuak, deitu 678 267 657 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Belate auzoan, estreinatze dagoen etxebizitza salgai dago. Prezioa negoziagarria da. Informazio gehiago jakin edo interesa dutenek, 660 895 600 telefono zenbakira deitu dezakete.

Irudia Tolosa



PELLO ODRIUZOLAREN ALDE

Lizardiko kideek deliuta elkarretaratzeko izan zen pasa den urtarillaren Sean Pello Odriozola euskal preso tolosararen askatasuna eskatzeko. Hileko lehen ostegunetan egiten dute elkarretaratzeko Tolosako Trianguloan, eta hainbat herritar elkartu ziren Pello Lizardira/Ileoa zuten pankartaren atzetan. Pello Odriozola tolosarrak 24 urte beteiko ditu espetxean, datozen asteotan...

Irudia Tolosa



ERREGE EGUNEKO KONTZERTUA

Errege egunean, urteroko kontzertua eskaini zuten Udal Txistulari Bandak eta Udal Musika Bandak, musika eskolatan. 12:30ean hasita, hiru pieza eskaini zituzten txistulariek, eta jarraian musika bandak kortzi obra interpretatu zuten. Besteak beste, Eduardo Mokoroaren Errege Jaia, eta Johan Straussen beste zazpi obra izan ziren entzungailu. Kontzertua Maircha Radezky esagunarekin bukatu zuten...

Garenak x2 izateko
 Lagun lezaguz harpidedun berriak egiten

eta **opari bana** jasoko duzue

HITZAren jertsea harpidedunak

Arratsaldeko seiak aldera iritsiz, pasa den ostegunetan, Errege Magoak Tolosara, eta gaitetsoek hurrengo urtera arte itxaroen beharko dute berriz ere eurekin hitz egin behar izateko.

Urteroko moduan, izaskundik jaitzi ziren, suziri eta kriseluen argiak lagunduta, eta Akle Zaharriko kaleetan barenba ibili zen desfilea.

Mahala saskia harpidedun berriak

HITZA, euskarazko herri informazioaren leihoa

Harpidedun berria urtarrilaren 31 baino lehen ekartzen dutenentzat.

Errege Magoen zain hurrengo urtera arte

22 taldek parte hartu dute jaiotza lehiaketan; Belza, Egizabal, Tamay eta Etxeberriak irabazi dute lehen saria

Pasa den urtarillaren Seko Erregeen desfilean, nesko-mutil gazteekin jaiotza lehiaketa izan zen urtero bezala. Ibilbide osoan zehar beren eskulanean erakutsi zituzten, eta haurrek Errege Magoi beren opari eta desioak eskatzearen bidea, jaiotza lehiaketako lehen hiru sartuen izenak ere esan zituzten.

Lehenengo saria Jone Belza, Inta Egizabal, Nisore Tamayo eta Irati Etxeberriak irabazi zuten. Bigarren, berriz, Yhane Zinkunegi, Maider Oiarzabal, Alaitz Uzkudun eta Garazi Otamendi suertatu ziren.

Azkenik, Sara Goenagak, June Lopezegik, Lucia Torquemadak eta Ana Torquemadak irabazi zuten hirugarren saria.



Ilara luzeak izan ziren Zerkausian, Errege Magoekin hitz egiteko. IZAZKA



Oargi mendi taldeak Zumalaitik Debara egingo du ibilbidea, flysch-en inguruan. IZAZKA

Euskal Herriko bazterrek bisitatuko dituzte urtarillan eskualdeko mendi taldeek

Zumalaitik flysch-ak, Urepel eta Mandogei tontorak eta Santa Grazi bisitatuko dituzte mendizaleek

Itzea Urkizu

Asteburu honetarako nahiz hurrengoak, Euskal Herriko parajeak ezagutzeko irteerak antolatuko dituzte Tolosako eta Ibarako mendi taldeek. Oargiakoak, Zumalaiti joango dira eta Alpitxokoak, berriz, Plazaola mugatik Aranoako ibilbidean egongo dute. Berrizko Hartzetan Raju-Bai Euskal Herriari mendi taldeak, Zuberoa txangoan antolatu du datozen urtarillaren 27tik zira, Santa Gruzara joango dira aurten.

Flysch-en karmaren bila

Tolosako Oargi mendi elkartek urteko lehen mendi irteera datorren igandean egingo du, eta Zumalaitik Debarako ibilbidea burutu dute mendizaleek.

Goizean goiz irteerako dira Tolosatik, autobusa Usabal kiribidean hartuko dute 08:00etan. Zumalaiti iritsitaikoan hasiko dute ibilbidea; flysch-en inguruan ibiliko direla azaldu dute antolatzaileek, eta irtiera oso poltsa izango dela. Bost ordu inguruko ibilaldia, Deban amaituko dute, eta hantatik Itzuloa dira, berriro ere, Tolosara.

Bihar izango da izena eman ahal izateko aukerik eguna. Hurrengoak, info@oargi.org edo mendi@gmail.com helbideetara idatzi daitezke; era berean, 088 89 88 42 telefono zenbakian del egin daitezke. 18:00etatik 21:00etara bitartean, Irteerara, norberak bere jantaria eraman beharko du.

Gipuzkoa eta Nafarroa artean

Alpino Uzturreko kideek ere, igandean honetarako antolatu dute 2012ko lehen irteera. Plazaola mugan hasiko dute ibilbidea, eta

Aranoan amaituko dute. Autobusean joango dira, eta 08:00etan irteerako dira San Fransiskoetik. Ibilbidearen iraupena bost ordu ingurukoa izango da, eta tartean Gipuzkoa eta Nafarroako mugan dauden Urepel (1.056m) eta Mandogei (1.045m) mendiak igoko dituzte.

Asteburu honetan irteerako dira Tolosako taldeak; Ibararako datorren asteburuan

Alpino Uzturreko kideek 7 euro ordaintu beharko dute autobusa, eta bazkideei direnek, berriz, 5 euro. Irteeran izena emateko, 943 65 27 88 telefonara del egin daitezke, eta baita alpinouzturre@hormiri.com helbidera idatzi ere.

Euskal Herriko mutur batera

Datorren asteleko antolatu dute Hartzetan Raju-Bai Euskal Herriari mendi taldeko ibarzarrek, Iaz ere Zuberoara joan ziren Hartzetan Raju taldekoak. IZAZKA

urteko lehen txangoa. Urtarrilaren 27tik 29ra bitartean, Zuberoan izango dira, Santa Gruzatik. Euskal Herriko azken murraren, mendirik altuen dago: Santa Gruzak, eta Zuberoa eta Eronkari lotzen zituzten pasabideak zaharretakoak izan dira herri hau. Iazber (1.539 m) mendiak inguratzen du herria iparraldetik, eta begoaldean behar dute parte hartzaileak.



→ Laburrak

Harkaitz Canoren 'Twist' eleberria aztergai
 TOLOSA | Datoren ostegunetan, Galtzaundi irakurle Taldearen saioa izango da, 19:30ean, Kultur etxean. Harkaitz Canoren laugarren eleberria azteruko dute. Twist Bertanzen dienez irakurrita eraman beharko dute lana.

'Gorputzaren zaintza edoskitzean' gaur
 TOLOSA | Esna Bidean erakusketaren barruan, Olatz Basteiretzearen ostekoak Gorputzaren zaintza edoskitzean hitzaldia eskainiko du gaur, 18:00etan, Aramburu Jauregian. Bihar, berriz, ordu eta leku berean, edoskitze saioa izango da. Lanurab honetan, urtarillaren 14an, Esna Bidean erakusketak amaituko da. Itaz puri Kortalarianekin eta bular emate kolektiboarekin.

Kultur eragileen bilera antolatu du udalak
 IBARRA | Ibarako Udalak herrian kultur arloan lanean ari diren eragile guztiekin bilera bat egin nahi du. Aizateak deliuta du bilera, 2012. urterako kultura arloan herriko hainbat eragileekin elkartasun saioa izateko, eta eragileen arteko koordinazioa eta elkarlanean bideak eta aukerak aztertzeko. Bilera gaur 19:30etan izango da, 19:30ean. Benito Izagire Kultur etxean.

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****FUTBOLA****ERREGIONAL OHOREZKOA****16. jardunaldia**Trintxerpe CD - **Tolosa CF** 2-0**Sailkapena**

1. Anaitasuna	35p
2. Berio	32p
3. Tolosa	29p
4. Oiartzun	27p
5. Aretxabaleta	27p
6. Pasaia	26p
7. Beti Gazte	26p
8. Bergara	23p
9. Aloña Mendi	23p
10. Real Union	22p
11. Urola	22p
12. Elgoibar	21p
13. Hondarribia	19p
14. Trintxerpe	17p
15. Aurrera	16p
16. Behobia	12p
17. Roteta	12p
18. Arrasate	11p

Hurrengo jardunaldia**Tolosa CF** - Hondarribia**ERREGIONAL PREFERENTEA****16. jardunaldia****Lehen taldea****Tolosa B** - Martutene 2-0**Sailkapena**

1. Ostadar	34p
2. Tolosa B	32p
3. Touring	32p
4. Usurbil	30p
5. Beti Ona	28p
6. Astigarragako Mundarro	27p
7. Mariño	25p
8. Santo Tomas Lizeoa	21p
9. Munibe	17p
10. Euskalduna	16p
11. Allerru	16p
12. Lengokoak	15p
13. Martutene	13p
14. Sanpedrotarra	12p
15. Dunboa-Eguzki	9p
16. Kostkas Miren Bihotza	8p

Hurrengo jardunaldia**Tolosa CF** - Euskalduna**Bigarren taldea**Mutriku - **Intxurre** 5-1**Sailkapena**

1. Lagun Onak	29p
2. Antzuola	26p
3. Soraluze	26p
4. Ordizia	25p
5. Anaitasuna	24p
6. Getariako KETA	24p
7. Ilintxa	24p
8. Mutriku	22p
9. Zumaia	20p
10. Zestoa	19p
11. Orioko	18p
12. Idiazabal	16p
13. Amaikak bat	15p
14. Aretxabaleta	14p
15. Eibartarrak	13p
16. Intxurre	11p

Hurrengo jardunaldiaAntzuola - **Intxurre****PILOTA****Bost t'erdiko Bizkaia****Txapelketako finala**

Titin III- Barriola-	22
Olaizola II-Patxi Ruiz	20

Euskadiko Txapelketa

Amurrio- Aurrera Saiaz	6-18
Zugarralde- Aurrera Saiaz	21-22
Aurrera Saiaz -Markina	4-22
Aurrera Saiaz 1 -Markina	22-19
Aurrera Saiaz 2 -Intza	5-22
Zazpi Iturri-Aurrera Saiaz 1	22-16
Oiarpe- Aurrera Saiaz 2	21-10
Txukun Lakua- Aurre Saiaz 1	16-22
Legutio- Aurrera Saiaz 2	22-16
Zazpi Iturri-Aurrera Saiaz 1	15-22

SOKATIRA**Euskal Herriko 4X4 Goma****Gaineko Txapelketa****680 kilotan (gizonezkoak)**

1. Abadiño	7p
2. Ibarra	6p
3. Amaiur	5p
4. Zuraide	4p
5. Sokarri	3p
6. Zuraide B	2p
7. 6 Conceyos	1p

540 kilotan (emakumezkoak)

1. Badaiotz	4p
2. Sakana	3p
3. Ibarra	2p
4. Bizindar	1p

Hurrengo jardunaldia

Urtarrilak 15, Lizarra: 640 / 540

ARRAUNA**Federazioa Trofeo (Donostia, urtarrilak 8)****Haur/kadete neskek**

1. Hibaika
2. Getaria
3. San Juan
4. San Pedro A
5. Tolosaldea B
6. Hernani
7. Tolosaldea A

Infantil mutilak

1. San Pedro
2. Tolosaldea A
3. Zumaia
5. Tolosaldea B

Kadete mutilak

1. Hibaika
2. Zarautz
3. San Juan
4. Tolosaldea B
6. Tolosaldea A

Jubenil/senior neskek

1. Hibaika B
2. San Juan
3. Hibaika A
5. Tolosaldea A

Jubenil mutilak

1. San Pedro A
2. Mundaka A
3. Zumaia
7. Tolosaldea A
10. Tolosaldea B



Telefonica Team ontziko kideak bigarren etaparen garaipena ospatzen. MARIA MUJINA

Fernandezen Telefonica ontzia ostiraleko probarako prestatzen hasi da

Volvo Ocean Race probako sei puntu egongo dira jokoan. Munduko probaren bigarren etapa irabazi, eta sailkapeneko lehenengo postuan kokatu ostean, Fernandez eta Martinezek egun batzuk izan dituzte atsedenerako Abu Dabin (Arabiar Emirerri Batuetan). Bertan, senitartekoen bisitaz gozatzeko aukera ere izan dute. Baina, euren aurkariak baino lehenago jarri dira lanean, eta atzo bertan entrenatzen ari ziren ontziko taldekide guztiak, herenegun itsasoratu ostean.

Iñigo Terradillos Ibarra

Xabi Fernandez ibartarra eta Iker Martinez hondarribitarraren Telefonica Team ontzian ostiraleko arraunketarako prestatzen ari dira dagoeneko. Hain zuen ere, Abu Dabiko lurra utzi eta itsasoratzen lehenak izan dira. Izan ere,

Volvo Ocean Race probako sei puntu egongo dira jokoan. Munduko probaren bigarren etapa irabazi, eta sailkapeneko lehenengo postuan kokatu ostean, Fernandez eta Martinezek egun batzuk izan dituzte atsedenerako Abu Dabin (Arabiar Emirerri Batuetan). Bertan, senitartekoen bisitaz gozatzeko aukera ere izan dute. Baina, euren aurkariak baino lehenago jarri dira lanean, eta atzo bertan entrenatzen ari ziren ontziko taldekide guztiak, herenegun itsasoratu ostean.

Bost ordu egin zituzten atzo Pertsiar Golkoko uretan. Euren helburua haize ufadarik gabe nabigatzeko ohitura hartzea izan da. «Izan ere, baregoa da hemen itsasoa, eta abiadura motelagoan goaz, beraz, edonork irabaz dezake ostiraleko proba», azaldu dute taldekideek. Gaurko entrenamenduan, ere, helburu berarekin jarraituko dute Telefonica Team taldekoek.

Xabi Fernandez eta Iker Martinez lehen postuan dira, 66 punturekin; Camper with Emirates Team New Zealand bigarren, 58 punturekin, eta hirugarren postuan, Groupama Sailing taldea, 42 punturekin.

Barriola eta Titinentzat lehen Bizkaia lehiaketako txapela

Aspeko bikoteak maila bikaina erakutsi du txapelketa guztian zehar, finala oso borrokatua izan da

I. Terradillos Leitza

Titin III eta Barriolak osaturiko bikotea da bost t'erdiko Bizkaia Txapelketako garailea. Larunbatan jokatu zuten finala Olaizola II eta Patxi Ruizen aurka, eta par-

tida parekatu eta maila handikin atera ostean, 22-20ko emaitzarekin amaitu zen. Ondorioz, errioxarrak eta leitzarrak jantzi zuten estreinako txapelketa honetako txapela.

Titin eta Barriolak osaturiko Aspeko bikoteak maila bikaina erakutsi zuen, txapelketa guztian bezalaxe. Aurrealdean, Titin Olaizola baino gehiago izan zen. Eta, atzealdean, berriz, Barriolak bere mailarik onena erakutsi zuen, aurrelariak baino tantu gehiago eginez. Hala, etengabe

pasaren lerroa eraman zituen pilotak, eta Olaizola jokotik ateratzea lortu zuen behin baino gehiagotan. Era berean, aurrealdean hobekien defendatzen den, eta baliabide gehien dituen atzelaria zela erakutsi zuen leitzarrak, beste behin.

Aspegarcekoak aurretik ere izan ziren une batzuetan, baina orokorrean parekatua izan zen norgehiagoka, borroka estukoa. Tentsio handia bituzten; azkenaurreko tantoan, esaterako, 90 pilotakadara iritsi zirelarik.

600 gaztetxo aritu dira areto futboleko Shanti Txapelketan

Nesken eta mutilen 61 taldek hartu dute parte; herenegun egin zuten sari banaketa Usabal kiroldegian

I. Terradillos Tolosa

Amaitu da Gabonetako areto futboleko Shanti Txapelketa. Urtero bezala, gaztetxo ugari hartu du parte ekimen honetan, eta antolatzailerak «gustura» azaldu dira, batez ere, nesken parte hartzea igo delako. Hain zuzen ere, 61 talde aritu dira, 600 lagun baino gehiago. Bada, herenegun jokatu ziren finalak Usabalen, eta ondorengo taldeek irabazi zuten: benjamin nesketan, Zurrumbilok; benjamin mutiletan (2003), Txispa; benjamin mutiletan (2002), Laskoraino Tigreak 2; Alebin nesketan, Sua 11; eta alebin mutiletan, Iurre taberna taldeak.



Usabalen jokatu ziren txapelketako azken partidak herenegun, eta ondoren sari banaketa egin zuten. S. GOMEZ

Otaegik eta Otañok oso erraz menderatu dituzte egungo txapelkunak

Unai Otaño ibartarra eta Joseba Otaegik zizurkildarra Urrezko lehiaketan lan bikaina egiten ari dira

Erredakzioa Ibarra

Igandean, Deban, jokatu zen Urrezko Aizkorako kanporaketa, eta Unai Otañok eta Joseba Otaegik osatzen duten bikotea finalerdietara pasa da. Ibartarrak eta zizurkildarrak, lehen proba galdu bazuten ere, egungo txapelkunak diren Iñaki Azurmendi eta Aitzol Atutxa erraz menderatu zituzten. Gaineroko proba guztietan nagusi izan ziren, eta lan guztiak burutzeko 19 minutu eta 3 segundo behar izan zituzten. Azurmendik eta Atutxak 21 minutu eta 31 segundotan geratu zuten denbora.

Mutiek bigarren egin dute sokatirako Euskadiko Txapelketan

Larunbatean hasi zen lehiaketa eta ibartarrek maila ona erakutsi dute; neskek hirugarren egin dute

I. Terradillos Ibarra

Larunbatean hasi zen 2012ko goma gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa, eta txapelketako lehen txapela Abadiño talde bizkaitarrak jantzi, 680 kiloko, hain zuzen ere. Emakumezkoen 540 kilokoan, berriz, Gasteizko Badaioztek pisu horretako lehen jardun-

naldia irabazi zuen, tiraldi guztiak irabazita. Ibarraren kasuan, gizonetzkoetan bigarren sailkatu ziren, eta emakumezkoetan, hirugarren.

Artziniengan (Araba) jokatu zen larunbateko txapelketako lehen saioa. Gizonetzkoen 680 kilokoari dagokionez, jardunaldi bakarreko saioan ibartarrekin batera, Zuraide A (Zuraide, Lapurdi), Zuraide B (Zuraide, Lapurdi), Abadiño (Abadiño, Bizkaia), Sokarri (Arrigorriaga, Bizkaia), Amaiur (Amaiur, Nafarroa Garaia) eta 6 Conceyos (Asturias, Espainia) lehiatu ziren.

Abadiñok sei txandak eta 12 ti-

raldiak irabazi zituen «neurritzak kanpoko estuasunik izan gabe». Ibartarrak ere «fin» aritu ziren, eta azkenean bigarren postuan sailkatu ziren.

Emakumezkoen 540 kilokoan, lehen jardunaldia jokatu zuten Ibarrek, Badaioztek, Sakanak eta Bizindarrek. Badaioztek irabazi zuen, hiru txandak eta sei tiraldiak irabazita, Sakana bigarren geratu zen, eta hirugarren Ibarra.

Hurrengo jardunaldia igande honetan, hilaren 15ean izango da, Lizarran. Gizonetzkoetan 640 kilokoan lehiatuko dira, eta emakumezkoetan 540 kilokoaren bigarren jardunaldia izango duzte.



Herenegungo saioko ibartarren une bat. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** *Esna-bidean* erakusketaren barruan gaur, 18:00etan Aranburun, *Gorputzaren zaintza edoskitze garaian* Olatz Basterretxea osteopataren eskutik. Bihar ordu eta leku berean, edoskitze saioa egingo dute. Altzoan guraso elkarteak antolatutako egitaraua larunbatean, hilak 14, bukatuko da, 18:00etan Aranburun Itziar Saenz de Ojer ipuin kontalariak eskainiko duen saioarekin. Ondoren, erakusketara itxeko, bular emate kolektiboa egingo dute.
- **Ibarra.** Kultur taldeak bilera egingo du gaur, 19:00etan kultur etxean.
- **Alegia.** Txintxarri Abesbatza kultur elkartearen batzar nagusia izango da gaur. Lehen deialdia 20:00etan izango da, eta bigarrena, 21:00etan. Elkarteko kideek garaz iristeko eskatu diete parte hartzeko asmoa duten guztiei.
- **Alegia.** Udalak etorkinei zuzendutako alfabetatze eta euskara eskolak antolatuta ditu. Izena hilaren 13a, ostirala, baino lehen eman behar da, kultur etxean edo gizarte zerbitzuetan. Eskolak otsailean hasi eta maiatzean bukatuko dira.
- **Zizurkil.** Goiko zentroan bertso tailerra antolatuta dute. Unai Mendizabalekin izango dira eskolak, eta urtariletik ekainaren 12a bitarte iraungo dute. Eguna eta ordua izena ematen dutenen arabera erabakiko dituzte. Izena emateko Aurrera plazako

udal bulegoetara jo behar da (943 69 24 95 telefono zenbakia).

- **Anoeta.** *Margoketa dekoratiboa* izeneko ikastaroa izango da herrian, Kutxak antolatuta. Eskolak otsailaren 9tik abenduaren 20ra bitarte izango dira. Ostegunero bilduko dira Hozpel kaleko udal lokalean, 15:15etik 17:15era. 151 euro balio du ikastaroak, eta materiala aparte ordaindu behar da. Izena urtarrilaren 18tik 25era eman daiteke 902 540 040 telefono zenbakira deituta, edo www.kutxasocial.com webgunean sartuta.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** *Esna-bidean* erakusketara Aranburu jauregian, hilaren 14a bitarte. Askotariko lanak bildu dituzte: argazkiak, ilustrazioak, bideo bat ere badago ikusgai...
- **Tolosa.** *Baserritik Zerkausira* argazki erakusketa Aranburu jauregian. Hilaren 21a bitarte ikusi daiteke.



- **Albaida.** Intxaur auzo elkarteak auzoko argazki zaharrak bilduzten dituen erakusketa prestatu du. Irudiak urtarila bukaera bitarte ikusi daitezke, elkarteko liburutegian.

Irudia Ibarra



ETORRI BEZALA JOAN DIRA

Bukatu dira Eguberriak. Arnaitu dira bazkalondoko solasaldi luzeak, opariak jasotzerakoan sortutako zirrara, erosketak egiterakoan bizitako estresa... Orain elikadura pixka bat zaintzeko garaia da, opor egunak atzean utzi eta normaltasunera itzultzeko egunak. Ibarra, herri askotan bezalaxe, atzo hasi ziren Gabonetako apaingarriak kentzen, izan ere, orain, Inauterien garaia da, otsaila arte ez dira hasiko, baina jada dena prestatzen hasi behar da. R.CALVO

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

Liburudendetan:

Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudenda.

Ibarra: Lurdes liburudenda.

Tolosan: Aramburu liburudenda, Elkar liburudenda,

Babel liburudenda eta Elkartasun dendan.

Villabonan: Kazetaria liburudenda.

HITZAKo bulegoan:

Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

Eskaintza berezia

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue:

prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.

